



Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 29koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatzen zaio dagozkion neurriak har ditzan behar bereziak dituen adingabeak hezkuntzako laguntzaile espezialista baliabidea edukiko duela bermatze aldera. Adingabe horri bere familiaren etxebizitzatik gertu dagoen ikastetxe hitzarmendunean matrikulatzeko baimena eman diote.

Aurrekariak

1. 2012ko apirilean erakunde honetan familia batek aurkeztu zuen kexa-idazkia jaso zen. Familiaren nahia hauxe zen: giltzurruneko gaixotasun kroniko larria pairatzen duen semea etxebizitzatik gertu dagoen ikastetxe batean eskolatzea. Euren eskaera justifikatzeko familiaren etxebizitzatik gertu dagoen ikastetxe batera joateko gomendioa jasotzen zuten medikuen txostenak aurkeztu zituzten. Familiak 2012-2013 ikasturterako ikasleen onarpen prozesu arruntean parte hartu zuen baina ez zuen, euren esanetan, medikuek gomendatzen zuten gertutasunaren baldintza betetzen zuen ikastetxe bakarrean plaza lortu; izan ere, ikastetxe hitzarmendun bat da eta hainbat onarpen eskaera erregistratzen ditu.
2. Gure ohiko izapideak martxan jarri ostean (informazioa eskatzea, ondorengo errekerimendua, etab.), 2012ko ekainean, Ikastetxeetako zuzendariak erakunde honi baieztatu zion azkenean hezkuntza administrazioak baimena eman zuela adingabe hori bere familiak eskatutako ikastetxe hitzarmendunera joan zedin. Hori aintzat hartuta, abian jarritako esku-hartzea etetea erabaki genuen, kexa eragin zuen arazoa konpondutzat jo baikenuen.
3. Hala ere, 2012ko irailean, 2012-2013 ikasturtearen hasieran, familia horrek erakunde honen esku-hartzea eskatu du berriro ere. Azaldutakoaren arabera, hezkuntza arloko instantzietara (ikastetxea bera, eremu horretako berritzegunea, erreferentziazko ikuskatzailea) jo dute euren semeak ikastetxe horretan eskolatuta dagoen bitartean jasoko duen arreta zehazte aldera eta ezeinek ez dio adingabearen beharrak behar bezala asebeteko direla bermatzen duen erantzunik eman. Zentzu horretan, familiak adierazi du zenbait zailtasunen berri eman diotela, laguntza lortzeko aukerari, irisgarritasun baldintzei eta abarrei lotutakoak. Hori dela-eta, ondorioztatu du laguntza denbora tarte murriztu batean besterik ez dela eskainiko eta horrek, bere ustez, adingabearen eskolatze baldintzak modu larrian kaltetzen ditu.
4. Eskaera berri horren aurrean, gure aurreko esku-hartzea berriro abian jartzea erabaki dugu. Hala, izapide berriekin hasi ostean, orain dela gutxi, Hezkuntza Sailak erantzuteko txosten bat bidali dio erakunde honi. Osotasunean jasotzea egokitzen jo dugu:





“Aztertzen den gaiaz Sail honetako hainbat zerbitzu arduratu dira ikasturte-hasieratik; izan ere, ikasleak arreta berezia behar du, hainbat arrazoi direla eta:

- *Giltzurruneko gaixotasun kroniko larria du, jaio zenetik.*
- *Peritoneo-dialisiko kateterra du jarrita. eta zaintza bereziak behar ditu:*
 - *Hori ez da erabili behar*
 - *Ez da tripan kolperik jo behar*
 - *Kosta egiten da haur-oihalak kentzea*
- *Gauetan, etxean jasotzen du peritoneo-dialisia.*
- *Transplantearen zain dago, baina horretarako loditu egin behar du.*
- *Ziurtagiria aurkeztu du, gorputzeko % 52ko desgaitasun-mails aitortzen diona, giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa dela-eta.*

Erreferentzia-ikuskariak hiru bider hitz egin zuen ikaslearen ama Monika Llorente andrearekin. Elkarrizketa horietan, amak adierazi zuen umea goizetan EL SALVADOR HLBHIPn eskolatzea nahi zuela. Arratsaldeetan, berriz, ez da joango; izan ere, konplexua da harentzat jatea, eta denbora behar du horretarako.

Ikaslea ikastetxe horretan dago matrikulatuta, 25 ikasleko gela baten. Etengabeko arreta behar du (oinez astun dabil; behin eserita, lagundu egin behar zaio altxatzeko, eta eskailerak igo eta jaisten laguntzea behar du). Hori guztia dela eta, familiari proposatu diote goiz erdirako baino ez eramatea eskolara.

Umeaz arduraken den doktoreetako batek, Gurutzetako Ospitaleko nefrologo-pediatrak, jakinarazten du haurrak adin bereko beste umeak baino garapen psikomotor motelagoa duela, gaixotasun kronikoa duelako. Haren adinerako, ahalik eta bizimodurik normalena egiteko aholkatzen du; hortaz, eskolatzea aholkatzen du. Beste doktore batek, Gurutzetako Ospitaleko Nefrologia Pediatrikoko atalburuak, etxebizitzatik hurbil eskolatzeko gomendatzen du, gaixotasuna zaintzea eta eskolatzea uztartu ahal izateko.

Txurdinagako Berritzeguneko hezkunka-premia berezietako aholkulariak adierazten du ikaslea ekainean matrikulatu zela ikastetxean, baina jakinarazi gabe hezkuntza-premia berezirik izan dezakeen ikaslea denik, eta, kontuan hartuta zein baliabide dituen ikastetxeak, hezkuntza-laguntzako espezialista bat eskatu zuen, ikaslearen premiei erantzuteko 9:00etatik 12:25era (astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan), egoera horretan jarraitzen duen bitartean.





Ikaslea ahalik eta ondoen eskolatzeko, ikastetxeko erreferentzia-ikuskaria bildu egin zen Pedagogia Berriztatzeko lurralde-arduradunarekin, Ikuskaritzako lurralde-arduradunarekin, Hezkuntzako lurralde-ordezkariekin eta Ikastetxeen zuzendariarekin. Azkenik, lurralde-ordezkariek ikastetxeko zuzendaria eta ikaslearen gurasoak hartu zituen; ikasleak, berriz, goiz erdiko ordutegiaz eskolatuta segitzen du.

Arartekoari aurkeztutako kexan, ikaslearen amak dio hainbat hezkuntza-ordezkarirengana jo duela ikasturte hau hasi denetik, semea ikastetxean dagoen bitartean hari eman beharreko atentzioa zehazteko (eta berritzeguneko aholkulariak eta erreferentzia-ikuskariak ari da), baina eman dioten erantzunek ez dutela pentsarazten umearen premiak behar bezala beteko direnik. Argudiatzen du zailtasunak adierazi dituztela hezkuntza-laguntzako pertsona bat arduratu dadin umeaz, eta irisgarritasun-baldintzek goizeko ordutegi murriztu batera mugatu dutela ikasleak ikastetxean emango duen denbora.

Eskolatzeko baldintzak arestian aipatu dira, eta, laburbilduz, esan daiteke, gaur egun, umea 25 ikasleko talde bateko kidea dela, baina ikastetxeari ez zaiola hezkuntza-laguntzako espezialistarik esleitu, kexaren xedeari erantzuteko.”

Gogoetak

1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2012an jendaurrean aurkeztu duen Aniztasunarentzako Arreta Plan Estrategikoak eskola inklusiboaren xedea lortzeko ezarri dituen lehentasunen artean, honako konpromiso hau hartu du: aniztasunaren aurrean arreta eskaintzeko beharrezkoak diren neurri pertsonalizatuak abian jartzea ikasle guztien gaitasuna ahalik eta gehien garatzen dela ziurtatzeko, bereziki, ezintasun baten ondoriozko hezkuntza behar bereziak dituztelako zaurgarriagoak diren kolektiboen kasuan.

Zehatzago esanda, planak helburutzat jo du ikasle guztientzako baldintza berak dituen eskola sisteman sartzeko, bertan harrera jasotzeko eta geratzeko aukera bermatzea. Horri dagokionez, txostenak honakoa adierazi du:

“Hezkuntza-sistema kalitatezkoa izan dadin, beharrezkoa da ikasle guztiek, bereizkeriarik gabe, hezkuntza jaso ahal izatea, eskolatzeko gertutik jarraitzea eta ikasle guztiek erraz igarotzea hezkuntza-etapa batetik bestera.

Lehenengo etapa-aldaketa etxetik eskolara joatea da. Hori erraz eta arazorik gabe gerta dadin, beharrezkoa da, batetik, zailtasunik izanez gero, ahalik eta azkarren esku hartzea, eta bestetik, familiak parte hartzea eta erakundeak



elkarlanean jardutea: ikastetxeak, arreta goiztiarreko zentroak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, etab.”

2. Gure ikuspuntuaren arabera, esku artean dugun kasua, paradigmaticoa da aipatutako helburuaren garrantzia erakusterakoan.

Etxebizitzaren eta eskolaren arteko trantsizioaren lehenengo fasearen aurrean gaude. Adingabe horrek eskolatze formal baten esperientzia izango du lehenengo aldiz, haren gaixotasunaren eboluzioa ezagutzen duten osasun zerbitzuek hala gomendatu baitute. Laguntza ematen dioten medikuek haurra eskolatu dezaten gomendatu dute, betiere, familiaren etxebizitzatik gertu dagoen ikastetxe batean, ikasle horrek ikastetxean harrera jasotzeko dituen aukerak baldintzatzen dituzten osasun arloko zenbait beharren ondorioz.

Hori bai, osasun arloko behar horiei (peritoneo-dialisiko kateter bat jarri izanari zuzenean lotuta daudenak) beste batzuk gehitu behar zaizkie: gaixotasun horren ondorioz ezintasun fisikoa aitortu diote. Zalantzarik gabe, azken behar horiek dira berritzeguneko behar berezien aholkulariak oinarritzat hartu dituen hezkuntzako laguntzaile espezialistaren baliabidea eskatzeko.

Erakunde honen iritziz, azken hori kontuan hartzea garrantzitsua da. Hasiera batean, pentsa daiteke adingabe horren egoera eskolako orduetan osasun arreta bereziari buruzko zirkularrak hizpide dituen egoerekin bat datorrela. Hala ere, ez da osasun arloko profesionalek burutu dezaketen jarduteko jarraibide baten bidez konpondu daitekeen osasuneko arazo soil. Adingabe horren beharrak askoz sakonagoak dira eta, horregatik, berritzeguneko profesionalek ondorioztatu dute behar horiei erantzuteko hezkuntzako laguntzaile espezialistaren baliabidea beharrezkoa dela.

Hala, kasu honetan, Aniztasunarentzako Arreta Plan Estrategikoaren barruan ezarritako helburua kontuan hartuta, adingabe horrek dituen zailtasunak garaiz antzemateko eta arreta bermatzeko erakundearen arteko lankidetzak zera eragin beharko luke: adingabe horren eskolatzearen arduraduna den hezkuntza administrazioak gaixotasun kroniko larriaren tratamenduari lotutako gomendio medikuak kontuan hartzeaz gain, egokitzen diren baliabideen kudeaketa eta horniduran eginkizun aktiboa gain hartu beharko luke. Kasu honetan, hezkuntzako laguntzaile espezialistaren baliabidea.

3. Gure esku-hartzeari erantzunez bidalitako idazkian, hezkuntza administrazioak adingabearen eskolatze baldintzak egiaztatzen ditu eta baieztatzen du zentroan ez dela esleitu hezkuntzako laguntzaile espezialistarik, dagokion berritzeguneko hezkuntzako behar berezien aholkulariak horren inguruan eskaera bat mahaigaineratu zuen arren. Are gehiago, zera jaso da: *“ikaslea ekainean zentroan matrikulatu zen eta ez zen jakinarazi hezkuntzako behar bereziak dituen ikaslea denik”*.





Hezkuntza administrazioak erakunde honetan aurkeztu zuen lehenengo kexari erantzun zion eta, salbuespen gisa, ikasle hori familiak aukeratu zuen ikastetxe hitzarmendunean matrikulatu zedin baimena eman zuen, beraz, hori guztia aintzat hartuta, pairatzen duen ezintasun fisikoa dela-eta mugikortasun funtzionalari dagokionez dituen mugaketak kontuan hartu eta, ondorioz, horiei erantzuteko dagozkion neurriak hartu beharko lituzke.

Zentzu horretan, hauxe espero zitekeen: ikasle hori onartu zuen ikastetxe hitzarmendunak hezkuntzako behar bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten eta hezkuntzako laguntzaile espezialistak kontratatzeko beharra duten ikastetxe pribatu hitzarmendunentzat ezarritako laguntzak jasotzeko eskaera aurkeztea (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuaren 2012ko maiatzaren 29ko agindua – 113. zenbakiko EHAA, ekainaren 11koa).

Hala ere, agindu berak ondorengo aukera barne hartzen du: laguntza horiek jasotzeko eskaerak aurkezteko epea behin amaituta, eskaera berriak izapidetu ahalko dira hezkuntzako behar bereziak dituzten eta hezkuntzako laguntzaile espezialistak behar dituzten ikasleen eskolatzeari lotuta, egoera berriak gertatzen badira. Horrek esan nahi du, gure ustez, adingabe honen kasuan mahaigaineratutako egoerari eta antzerakoei erantzuna eman ahal zaiela eta baldintzatzaile bakarra kreditu nahikoa edukitzea dela.

Hala eta guztiz ere eta mota horretako zailtasunetatik harago, hezkuntza administrazioak berak adingabe horren eskolatzeko egokia burutzeko beharrezkoak diren baliabideen horniduran eginkizun aktiboa gain hartu beharko luke eta eskola inklusiboa lortzeko hartu zituen konpromisoak bete ahal izateko beste neurri batzuk aztertu beharko lituzke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

89/2012 GOMENDIOA, azaroaren 29koa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina

Dagozkion neurriak har ditzan behar bereziak dituen adingabeak hezkuntza laguntzaile espezialista baliabidea edukiko duela bermatze aldera. Adingabe horri bere familiaren etxebizitzatik gertu dagoen ikastetxe hitzarmendunean matrikulatzeko baimena eman diote.

